

Irizar i2e Madrilgo EMTn probatu dute

Ormaiztegi, 2014ko azaroaren 6a

Donostiaren eta Bartzelonaren ondotik, Madril izan da Irizar i2e modelo elektrikoa arrakastaz probatu duen Espainiako hirugarren hiria.

Irizarrek Madrilgo Udal Garraio Enpresari (EMI) laga zion bere ibilgailuetako bat, Saiakuntza eta Prototipoen plantillako hiru gidarik proban jarri zezaten Carabanchelgo operazio zentroan, gune hori EMTk eskaintzen dituen lineen batez bestekoa baino %15-20 gogorragoa dela jotzen delarik.

Irizar i2e autobus elektrikoaren autonomia zehazteko, prototipoa 12 orduz ibili zen 2 egunetan jarraian, baterien karga agortu arte. Proba egiteko ibilgailuari 1.200 kilogramoko zama gehitu zitzaion (karga osoaren %30, euren kalkuluen arabera), eta sistema osagarriak piztuta zituela, aire egokituaren ekipamendua izan ezik, kontsumoa hobeto zehaztu ahal izateko. Zirkuitua 880 metrokoa izan zen, bitartean lau geldialdirekin, eta horietan atea ireki eta itxi egin ziren.

Operadorearen Definizio eta Material Mugikorreko Dibisioaren burua den Angel Cedenilla jaunaren ondorioen arabera, "Irizar i2e linea arrunt batean zerbitzuan jarriko balitz, jarraian 180 kilometro ibiltzeko aukera izango luke birkargatu gabe, hau da, 14 orduko autonomia izango luke. Baldintza horiekin, autobus elektriko honek 80 - 90 lineatan funtzionatu lezake Madrilgo sarean".

Irizar i2e 12 metro luze da, eta 76 bidaiari eramateko ahalmena dauka horietatik 24 eserita. 230 kW-eko motor batek bultzatzen du, eta motorra sodio-nikelezko bateriaz eta superkondentsadore multzo batez elikatzen da; ondorioz, 200-250 km-ko autonomia izan dezake. Bateriak guztiz kargatzen dira gauean, bost orduz, eta autobusaren sabaian instalatuta daude, superkondentsadoreak bezala. Horien pisua hiru tona ingurukoa da.



Datozen hilabeteetan, Europako hainbat herrialdetako garraio publikoko enpresek egiaztatu ahal izango dituzte autobusaren prestazioak.